

# danbolin

2024.05.01

246 2H

Mendian umetatik,  
haitzetan eta elurretan  
gazte-gaztetatik





**Irao berri**  
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

640 917 626  
**Goxuri**

**k**  
kutxabank  
Portale Kalea 7, 20740 Zestoa  
tel. 943 147 088

**txoko taberna**  
erdikalea 3  
tel. 943 147 196

**OGI BERRI**  
tel. 943 536 314  
Orduetgia:  
Astelehenetik ostiralera  
07:30-13:30, 16:30-21:00  
Larunbat eta igandetan  
07:30-14:30, 17:00-21:00

**oller zagi**  
943 147 657

**AGUSTIN** taberna-jatetxea  
bar-restaurante  
943 897 331

**Zestoa**  
AUTOESKOLA  
Gesalaga 1 Tel. 943 148 524  
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa\_autoeskola@hotmail.com

**MB merenbero BEHOETXE**

	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

943 14 73 44 Iraeta- Zestoa

	URRIA	AZAROA	ABENDUA
1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

**UZTAPIDE**  
**TABERNA**  
Erdikalea 5  
Telf: 943 14 73 22  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

**AVA ASESORIA ARIN**  
ABOKATUA GESTORIA  
KONTABILITATEAK ZERGA  
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA  
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK  
Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOIA  
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

**IRAETA JATETXEA**  
Olaizola eta Uria kalea - Iraeta  
943 147 067

**CARAVAN PARK**  
GARRAIO SISTEMAK  
ERREMOLKEEN SALMENTA  
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK  
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK  
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK  
telf. 943 147 679  
www.caravan-park.net  
info@caravan-park.net

**Gestoria Zubia**  
M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOIA  
Tel./FAX: 943 897 070

**HARATEGIA LOPENE**  
tel. 943 147 848 - 607 186 006

**Viranzub taberna**

**laiak**  
kutxi eta pentsuak  
www.laiakdenda.com  
tfnua: 943148134  
Lurraren onena  
Zestoaren bihotzean.

**Aranburu**  
Landetxea eta jatetxea  
943 148 005

**TXOKO TXIKI**  
Okindegia eta taberna  
943 052 761

**Fati taberna**  
ZESTOIA  
Kale Okerra 3  
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l  
Itzulpenak baino askoz gehiago!  
**Bakun**  
Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.es  
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.es

**UROLA ITURGINTZA**  
665 49 07 73

**KOIOTE**  
foru plaza, 4  
tel. 943 147 095

**Araneta**  
ERRETEGIA  
626 869 231 / 943 148 092  
erreserbak@aranetaerretegia.com



## Iragana eta etorkizuna

Nire aurreko eta ondorengo belaunaldiak dira danbolinari eragiten diotenak hil honetan. Iragana eta etorkizuna. Disfrutatu dut batzuen eta besteen kontuak irakurtzen, trenbide zaharraren ondoan geratutako estazio zaharra bizi ikusi ahal izan dut eta kirolari gazteen begietatik bizia.

Goizeroko paisaiaren parte zait Urolako trenaren bidea. Uda eta negu. Euri, behe-laino edo eguzki. Makina bat joan-etorri egindakoa naiz (eta oraindik egiteko dauzkagunak!). Eta zail zait imajinatzen handik barrena tren, bere bapore eta guzti, jendez beteta. Baina Garcia-Fernandez sendiak eraman nau garai hartaraino, Zumaiatik Zumarragarainoko bidean, tartean tokatzen zen estazio honetaraino. Ekarri dizkit gogora etxean hainbatetan entzun ditudan koplak: 'Urolako tren', Agiñak idatzita, Imuntzo eta Epelarre 1988ko Trikitilari Txapelketan kantatuak. "*Hau da tristura ta pena. Hil da Urolako tren. Ohostu digute haren. Triki-traka ta sirena; Zumarratik Zumairaino. Eguzki, euri ta laino. Zer gauza politagorik. Urolako tren baina (...)*". Gure aitak kontatzen du bere jaiotetxetik, Aginagako Ezpaldi Txikitik, haizeak nondik jotzen zuen, entzun egiten zela trenaren triki-traka. Eta Maria eta Nereaz zer esan... gaztetasunaren indar eta gogoaren irudi. Etorri zaizkit burura C.D. Hernaniko elastiko berdea jantzita baloiarekin ibiltzen nintzen garaiak. Zein gustura ibiltzen ginen, baina zenbat detaile txikik (eta ez hain txikik) esaten ziguten egunero koska bat beherago geratzen ginela gizonezkoengandik. Poza ematen dit neska gazteak edozein kiroletan gozatzen ikusteak eta pentsatu nahi dut, bidea oraindik ere pare ez badago ere, atzokoen borrokatik leunagoa dela gaurkoentzat. Eta horrelako erreferenteak behar dituztela biharkoek.

Euskal Herrian lehentxeago eta Espainiako Goya sariet lagunduta gehixeago orain, ezagun egin den film batean dioten moduan "izena duen guztia bada". Historia kontatua den bitartean bizirik mantentzen den bezala, ametsak errealitate egiten dituztenek ere izenak dituzte eta, badira. Disfrutatu, irakurle, nik disfrutatu dudana adina edo gehiago, ale honetan topatuko dituzun lagun, ezagun, historia eta elkarrizketekin. Dantzatzen duen herri bat ez bada inoiz hilko, kontatzen duen herri bat ere ez.

*itzasa gubiria*



**DANBOLIN** EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAK ADIERAZIGAKO ESANEN ETA IRITZIZIEN ERANTZUKIZUNA

**Argibarrabaileak:** DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

**Danbolin:** naiara exposito, Amalur Arisci, Urko Canseco, Sara Matusciani, Naiara Olaizola, ITSASO ZUBIRIA, Jone Bergara eta IGASO WALIÑO

**Kolaborabaile/auzenbaile taldea:** nagore GELLERIA, Jon Argano, Fernando Arzallus, Onintza Irureta, Mireia Orbegozo, Nerea Odriozola, Janire Diaz, eta Maialen Kortadi

**Disainua eta mahebatzea:**

eneko arisci

**Inprimategia:** GERTU (OÑATI).

**Lege gordailua:** SS-1108/2000

**ISBN:** 1576-9429





## BIZITZAZ INGURATUAK

KaleKatu elkarteko Vanessa, zure galderari erantzunez, gure etxean, Gisasolan animaliekin terapia eta elkarbizitza duela urte asko gauzatzea erabaki genuen, Mara, gure Golden Retriever txakurra gure artera bizitzera ekarrita. Ordutik, gure etxean animalien presentzia etengabekoa da eta txoriak, arraiez beteriko akuario handi bat, eta katuak... gure artean bizi dira. Etxe ondoan oilategia ere badugu, baserri mundutik datozen askoren gozamenerako.

Ezagunak dira gizakien, naturaren eta animalien arteko loturak estuak izan direla gizakiaren hastapenetatik. Ikerketa zientifiko ugari daude gai hau oinarri hartuta animaliek gudan sortzen dituzten onurak baieztatu eta azaltzen dituztenak. Oso gertutik ikusten ditugu gure etxean bizi diren gizon emakumeengan dituzten onurak, osasun egoera gogorrean nahiz osasuntsu dauden pertsonengan eragin oso positiboak baieztatu ditugu.

Esate baterako, onura fisikoen artean, jarduera fisikoa hobetzea nabarmentzen dugu, eguneroko eta oharkabeko mugikortasuna bultzatuta, eta horrela, jarduera fisikoak dakartzan onurak lortuz. Psikoafektiboaren artean, antsietate eta estres egoerak gutxitzen dira, pertsonen emozio onak errazago azaleratzen dira, poza eta irribarrea sustatuta, min kroniko askoren baretzea gauzatuz. Onura psikosozialak ere nabarmenak dira, bakartasun sentipenak gutxituz eta sozializazioa errazteko laguntzaile bikainak bilakatzen dira eta pertsonen arteko harremanak asko indartu. Azkenik, funtzio kognitiboetan azaltzen diren onurak ugariak dira, errutinak landu eta ongi barneratzea errazten dute, denbora eta leku orientazioa errazago barneratzea lortzen da eta zentzumenen bidez (ukimena) psiko-estimulazioa lantzen da batez ere demenzia eta urritasun kognitiboa azalera den pertsonengan.

Animaliak gure bidelagun bilakatu ditugu eta zaila egiten zaigu izaki bizidun horiek gabeko egoitza irudikatzea. Baina, zer ote diote etxeko gazteek? Jexux Mari, Roberto, Alfonso eta Gorkak gurea bezalako egoitza batean bizitzeari buruz?



ri, Roberto, Alfonso eta Gorkak gurea bezalako egoitza batean bizitzeari buruz?

*jone miren gartziaarena arrieta*

**pintada.**

**IRISGARRITASUNA.** Urteak dira Zestoa-Azpeitia bidegorria egin zela, eta gutxi batzuk Lasako geltokia eta ingurua egokitu zirela, baina non gelditu da irisgarritasun legea betetzea? Zoriturrez, Lasako erdigunera joateko dauden eskailera haiek egokitu gabe daude oraindik. Ea udara alderako egiten duten! Eta bide batez, seinale batzuk ere jartzen dituzten, bizikleta eta antzeko ibilgailuei, oinezkoen parera iritsi aurretik, txirrina jo behar dela gogorarazten dietena; izan ere, oinezkoak askotan arriskuan aurkitzen dira: konturatzeko bizikleta bizkar gainean eta alboratzeko denborarik gabe, horrek dakarren is-tripua izateko arriskuarekin.

*marian astilleros*



## HARTZA DATOR ZESTOARA.

Azken urteetan, nire ahizparen lanari - eta nire ahizpari - esker, bera laguntzeko aitzakiarekin, Euskal Herriko hainbat txoko eta ohitura ezagutzeko aukera izan dut. Eta horren ondorioz, Euskal Herria zein gutxi ezagutzen dudan konturatu naiz.

Honela, nire buruari honako galderak luza-tu dizkiot: Ezagutzen al dugu Euskal Herria? Ezagutzen al dugu gure kultura? Ezagutzen al ditugu gure ohitura eta errituak?

Herri baten nortasuna bere ohiturek osatzen dute besteak beste, eta Euskal Herriko ohituratik ikusgarrienetarikoak inauteriak dira nire ustez. Hainbat teorien arabera, udaberriari ongietorria emateko ospatu izan dira inauteriak, eta honela, hartza eta lurraren esnaerarekin, gizakiak etxetik irteten gara herria musika eta mozorroz koloreztatuz.

Hainbat tokitan, inauteriek oraindik ere mantentzen dute halako indar berezi bat, jai horri bestelako zentzua ematen dion magia bat. Hala ere, gaur egun, leku askotan inauteriak disfrazen desfile soilak bilakatu dira, Zestoako kasuan bezala.

Baina, Zestoakoek ere badute inauterien esentzia. Izan ere, zestoarrok beste egunetan edukiko ez genituzkeen jokabideak bistaritzen ditugu egunotan. Era berean, inauteriek aukera paregabea eskaintzen digute gure buruaz eta besteez lasai barre egiteko, eta, nola ez, kritika sozial eta politikoak parodia moduan agertzeko. Bestalde, urte osoan zehar lotsa edo konplexua sortuko liguketen adierazpenak egiten ditugu inauterietan eta festaren protagonista nagusiak bilakatzen gara, molde edo eredu asko zalantzan jarriz. Ikusi besterik ez dago gizonezko asko zer gustura ibiltzen diren emakumearen itxura hartuta, eta alderantziz.

Aurtengoan ere izan dugu aukera eredu guztiak apurtzeko, injustiziak salatuz eta nola ez barre libre egiteko. Sumatu ote du Ekaingo hartzak udaberria gainean dugula?



*aizpea aristi*

## POSTARIAK EZ DIE INOIZ TXIRRINIK JOTZEN

Otsaileko gau ilun, hotz eta isil bat, edozein. Kale-argietatik gorako guztia beltz. Ibaiaren beste aldeko etxeak jada ez direla existitzen esan liteke, telebistako pantailak balira bezala piztuta egon ohi diren sei-zazpi leihoengatik ez balitz. Haietara begira ikusten dut nire *reality* partikularra.

Ezker-ezkerreko etxe zaharrea Renée bizi da, gurasoena izandako apartamentu batean. Hogeita zenbait urte izango ditu, eta lan duinik aurkitu ezin duelako ikasi eta ikasi ari-tzen da egun guztia, lan-eskaintza publikoren batean zerbait lortuko duenaren esperantzarekin. Beti dago bere gela liburu eta paperez betean, eta horregatik jotzen du egunero haren txirrina postariak, badakielako han beti dagoela atea irekiko dion nor-bait.

Apur bat aurrerago Hamid bizi da, bakar-bakarrik, inori enbarazurik egin nahi ez diolako, eta, seguru asko, marmartiegia delako besteen kontuak aguantatzeko. Erretreta hartu zuenetik osasuna galduta dabil, eta, azken hilabeteetan, ohetik ia altxa ezinik dago. Iluntzero alaba edo suhia joaten zaizkio bisi-tan, txandaka, ongi jaten ote dabilen ikusteko, garbitasunarekin apur bat laguntzeko, eta konpainia apur bat egiteko.

Bi solairu gorago, Jean eta Gabrielle bizi dira elkarrekin. Jean apur bat lehenago iristen da egunero, eta, erosketako zorroak mahai gainean utzi orduko, aforia prestatzen hasten da. Gabrielle berandu antzera itzultzen da, baina badaki etxera iristen denean goxo hartuko dutela. Biak egoten dira ia egun guztia etxetik kanpo, baina badute gauero non elkartua, badute eguneko nekeak non arindua, badute gaue-roko kafeaz non gozatua, mapa eta liburu artean etorkizunerako planak egiten dituzten bitartean.

Kalearen amaieran, lau gazte bizi dira erortzear da-goien etxe batean: besteak nolabait zaintzen dituen ile luzeko koitadu bat, bi iraultzaile (nihilista samarra bata, idealista samarra bestea) eta guapo-usteko bat. Ez dakite elkarrekin ondo-ondo moldatzen, eta bizimodu nahasi samarra dute, baina lagunak dira. Postariak ez die inoiz txirrini jotzen, etxegabetze-agindu batekin datorrelako ez bada.



*imanol galegi*





## KOBAZ KOPA TRAIL LASTERKETAREN ZAZPIGARREN EDIZIO ARRAKASTATSUA

Kobaz Kopa Trail mendi lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu zen otsailaren 12an. 500 korrikalari baino gehiagok hartu zuten parte proban. Zestoarren parte hartzea ere handia izan zen; izan ere, 54 herritarrek eman zuten izena lasterketan.

Sailkapenak:

Artzei ibilbidea (15km)

Emakumezkoak:

1. Ainara Urrutia Yurrebaso / 1:21:31

2. Irati Larrañaga Matxin / 1:26:26

3. Ane Elzaurdia Mentaberri / 1:26:31

Lehen zestoarra: Aintzane Diaz Jauregi 1:43:46

Gizonezkoak:

1. Dani Lopez Mendiguren / 1:11:25

2. Beñat Ibañez Ariztegi / 1:11:54

3. Iosu Elola Azurmendi / 1:12:27

Lehen zestoarra: Asier Amallobieta Aizpuru / 1:20:35

Zaldei bidea (26km)

Emakumezkoak:

1. Sara Peña Lizarralde 2:40:40

2. Larraitz Aragon Irusquieta 2:45:19

3. Tanit Perez de Leceta Gonzalez / 2:53:01

Gizonezkoak:

1. Iñigo Uribetxeberria Agirre / 2:13:46

2. Asier Rajado Barberena / 2:15:50

3. Hodei Lujanbio Apezetxea / 2:16:09

Lehen zestoarra: Amets Aramberri Otaegi / 2:19:40



**KOPLA KANTUAN OSPATU DUTE  
AURTEN ERE SANTA ESKEA HERRIGUNEAN  
ETA AUZOETAN**





INAUTERIAK23





UROLAKO TRENA ITXI ZUTELA 35  
URTE BETE BERRITAN, EUREN  
HAURTZAROA TRENBIDEAREN  
ONDOAN, BAINUETXEKO  
GELTOKIAN BIZITZEN EGON ZIREN  
PEDRO, ESTHER ETA MANOLI  
GARCIA ANAI-ARREBEKIN  
ELKARTU GARA. BOST ANAI-  
ARREBA DIREN ARREN,  
DANBOLINEK HIRU HORIEKIN  
EGOTEKO AUKERA IZAN DU. 25  
URTE PASA ZITUZTEN  
BAINUETXEKO TREN GELTOKIAN  
BIZITZEN. 1970ETIK 1995ERA  
ARTE GUTXI GORABEHERA.  
OROITZAPEN ZORAGARRIAK  
DITUZTE HAN PASATAKO URTEEZ,  
ETA GUREKIN ELKARBANATU NAHI  
IZAN DITUZTE.

# Urolako trenaren geltokia bizileku

## SALAMANCATIK EUSKAL HERRIRA

Marcos Garcia, aita, (Salamanca, 1937 - Zestoa, 2022) Salamancako herri txiki batean jaio zen eta 16 urte inguru zituenean, garai hartan oso ohikoa zenez, bizitza hobegoaren bila etorri zen Euskal Herrira aitarekin. Handik gutxira, ordea, bakarririk geratu zen bertan, Euskal Herrian, izan ere, aitak, hemengo klimak sortzen zizkion osasun arazoak tarteko, sorterrira itzultzea erabaki baitzuen. Hasierako urte haietan Zumaiako hostel batean egon zen bizitzen Marcos. Herminia Fernandez, berriz, (Salamanca 1937- Zestoa 2019), izeba eta ahizparekin etorri zen Euskal Herrira, beste senitarteko batzuen gomendioak medio. Zarauzko Gran Hotelean egiten zuen lan, Marcos ezagutu zuenean. Zarautzen, igande arratsaldeetan, dantzaldiak izaten ziren, eta horietako batean ezagutu zuten elkar. Dantzan ari zirela, elkarri nongoa zen galdetu, eta jaioterria elkarrengatik 11 kilometrora zutela ohartu ziren. Eta bizitzako kasualitateak, urte bereko egun berean jaioak ziren, gainera.



HAURTZARO ETA  
GAZTARO GUZTIA  
ETXE HARTAN IGARO  
ZUTEN:  
"ZORIONTSU IZAN  
GINEN HAN"



Bost seme-alaba izan zituen: Pedro, Esther eta Marcos bikiak, Juan Carlos eta Manoli. Marcos aitak Urolako trenean egiten zuen lan Zumaian, eta 1970ean Zestoako Bainuetxeko geltokiko etxea eskaini zioten bizileku. Ez zuen bi aldiz pentsatu, eta familia hartu eta Oikiatik Zestoara etorri ziren. Hasieran Zumaiaiko postuko lantokian jarraitu bazuen ere, denbora gutxira, Zestoan lan egiteko aukera suertatu zitzaion. Ordurako ezkondata zegoen, eta seme-alabak ere jaiota. Txikienak, Manolik, 10 hilabete zituen.

### ESTAZIOA ETXEBIZITZA

Bainuetxeko tren geltokian bizi ziren, baina Marcosek ez zuen han lan egiten, Zestoako tren geltokian baizik. Hala ere, Bainuetxeko geltokiko mantentze-lanak, telefono deiak jasotzea, komunen garbiketa... berari zegozkion. Geltoki hartan jendea igo eta jaitsi bakarrik egiten zen, ez zen txartelik saltzen. Bertan, trenera igotzen zirenek pika-pikari (ikuskatzaileari) ordaindu behar izaten zioten.

Geltokiaren goiko solairuan zen etxebizitza. Behean, itxarongela zegoen, baita telefono-gela ere. Telefonoak noiz joko adi-adi egoten zirela diote, izan ere telefonoak jotzen zuenean aitak hartu egin behar izaten zuen. Baina hori bai, "handik ezin zen dei bakar bat ere egin! Debeekatuta genuen, laneko deiak jasotzeko bakarrik zen!". Ederki gogoratzen du hori Estherrek, izan ere, berak herriraino etorri behar izaten zuen telefono-kabinetara bere lagunei etxera deitzeko.

Oso etxe altua zen, hiru pisu egiteko modukoa eta ez zeukan ganbararik. Zaharra zen eta hotza. "Txapa geneukan sukaldean eta denok hantxe egoten ginen. Dutzarik ere ez geneukan, komun txiki bat zuen".

Gaur egun, herriaren kanpoaldean dagoen txalet bat bezala da Bainuetxeko geltokia, baina garai hartan oso bestelakoa zen ingurua. Ez zegoen farola bakar bat bera ere: "Gure gaztaroko pa-

Tren geltokian ez zuten bizilagunik, baina garai hartan Bainuetxeko garbitokian senar emazte batzuk bizi ziren, Juli Arakistain eta Migel Alberdi. Haiekin harreman oso estua zuten: "Haiek ez zeukaten seme-alabarik, eta gurekin oso gustura ibiltzen ziren". Gizona bertako turbinaz, bainuetxeari argindarra ematen zionaz, arduratzen zen, baita mantentzeaz ere. Haiek etxean telebista zuten, eta ordu asko pasatzen zituzten beraien etxean. "Makina bat enkargu egiten nizkien haiei herritik, eta bueltan bokadilloa, patata-tortilla, flanen bat edo propinarene bat beti jasotzen nuen!", esaten digu Pedrok. Uraren indarrak mugitzen zuen turbina, eta hari esker zuen Bainuetxeak elektrizitatea eta baita gure etxeak ere. Neguan, urak adar asko ekartzen zituen, ordea, eta tarteka garbiketa egitea tokatzen zen, bestela argirik gabe gelditzen ginen.

Amak, Herminiak, hantxe *labaderoan* egiten zuen lan. Etxe aurrean zeukaten eraikina. Bi zubien artean, alderik alde. "Guk ere pila bat laguntzen genion amari, bertan bizi ginenez... euria hasten bazuen, amak deia dar egin eta denok korrika joaten ginen esekita zegoen arropa jasotzen laguntzera!", dio Estherrek. Manolik gogoan du lurrin berozko armairu luze batean nola mahai-oihalak eta ezpainzapiak eta arropak zintzilikatzen ziren.

### ESKOLARA TRENEZ

"Ez dakit nondik zegoen tarte txikiagoa eskolara, San Jose ikastetxera, Zestoako geltokitik edo gure etxetik, baina gu trenez joaten ginen". Urolako treneko langileen familiakoek doan izaten zuten trena. Eskolara joateko, adibidez, primeran aprobetxatzen zuten, baita hondartzara joateko ere; Zumarragatik trena nola etortzen zen, bete-bete eginda, oroitzen dute. "Oesteko trenak deitzen genien" dio Pedrok, "zati bat irekia izaten zuten eta udan bagoi gehiago behar zirenean horietakoak sartzen zituzten. 13 bagoidun trenak eta izaten ziren udan!".

Trenbidearen ondoan bizi baziren ere, trena harrapatzeko korrika saioak egin behar izaten zituztela diote; izan ere, trenaren soinuarekin guztiz ohiturik zeuden eta, askotan, ez ziren ohartu ere egiten trena pasa berri zen, bazetorren edo bertan ote zen.

### BAINUETXEAREKIKO LOTURA

Pedrok ondo gogoratzen du nola aritzen zen *botones* lanak egiten Bainuetxean: "13 urterekin edo hasi nintzen, uda oro, botones lanetan, herriko beste mordoxka batekin: Estanis, Uria, Txoixo... Herriko mutil gazte mordoa izan ginen *botones*. Nik uste, gu izan ginela azkenetako *botonesak*. Gero alkandora urdina eta gor-



rranda guztiak han bizi ginela egin genituen, eta lagunak herrian utzi eta han joaten nintzen etxera korrika batean. Bainuetxe inguruan, gainera, bikote mordoa egoten zen kotxetan" dio Estherrek. Manoli ere ondo gogoratzen da etxerako itzulera haiekin: "bide guztian atzera begira joaten nintzen" dio. Udalean behin baino gehiagotan eskatu omen zuten farolak jartzeko bidean, baina inoiz ez zegoela dirurik eta goiko aldean (Benta aldetik) bazirela esaten zieten. "Handik irten eta herrira bizitzera etorri ginenean jarri zituzten farolak beheko bidean!" dio Estherrek. Etxeko atea giltza bakarra zuen, burdinazko giltza zahar handi horietakoa. Parranda garaian erretiratzen azkenak beste lauak ohean al zeuden begiratu behar izaten zuen. Makina bat aldiz leihora harri-tiraka ere ibili zirela gogoratu dute.





► bata jarri zizkiguten. Maletak alde batera eta bestera eramateaz gain, txakurra paseatu, erosketak egin, bolatokian boloak zutik jarri, eta antzeko lantxoak egiten genituen”. Garai hartan Bainuetxea uda sasoiaren bakarrik egon ohi zen irekita eta jende aberats asko etortzen zen bertara. Gure solaskideak ondoan bizi zirenez, jende asko ezagutzeko aukera izan zuten. Manoli, adibidez, bost senideetan txikiena, Madrillgo familia bateko alabaren laguna egin zen, eta ia uda guztia beraiekin pasatzen zuela gogoratzen du: “Hilabete bat pasatzera edo etortzen ziren Bainuetxera eta ni eurekin ibiltzen nintzen alde batera eta bestera”. Uda batean beraiekin aste bat pasatzera joan zen Marbellara eta Madrilen euren etxean ere egon zen. Urteetan mantendu du harremana alabarekin eta bere ezkontzan ere hemen izan zen: “Hau asko gustatzen zitzaion eta festetan-eta behin baino gehiagotan etorri izan da gurekin!”. Pedro anaia zaharrenak gogoan du bera *botones* zebilen bitartean, arreba gaztea nola ikusten zuen jolasean eta gauetan nola egiten zituen ateraldiak “gaur Hondarribian izan naiz eta hurrena Pasaian eta...”. Mutilek ere izan zuten behin sorpresa. Seme-alabarik ez zuten bikote batekin kalera etorri eta Kaleokerreko Larrañaga dendan hirueri poloak erosi zizkioten. Polo marradunak, hirurentzat berdinak eta bihotzaren parean krokodilotxo bat. Gerora jakin zuten Lacoste marka ezagunekoak zirela.

Bainuetxean dendak zituztenei ere laguntzen aritzen zirela oroitzen dute. Trenean iristen ziren, adibidez, Bergarako barrubeteak (Rellenos de Bergara) eta kaxak Bainuetxeko Alamedako dendara eramaten zizkieten saltzaileari, musutruk noski. Eta noiz edo noiz, enkargua ahazten bazitzairen errieta ere etzun behar izan zutela gogoratzen dute. Bainuetxeko ura botiletan saltzen zen garai hartan, eta askotan tokatu zitzairen botilak botilaratze-etxetik trenera edo alderantziz eramatea. Orain pelleta egoten den lekuan zegoen, Bainuetxe parean, ibaiaren beste aldera. Merkantzia iristen zenean, orratza aldatu behar izaten zen, gurditxo moduko batera deskargatu eta handik etxe atzeko trenbidetik botilategira. Izugarritzko pisua izaten zuen.

### OROITZAPENAK

Errege Egunean tren-makina txiki bat etortzen zitzairen, goizean goiz, etxe parera hiru erregeekin. Aitaren lankideak izaten ziren mozorrotuta. Haurrak bizi ziren geltokietara joaten ziren opariak banatzera. Oso oroitzapen politak dituzte egun horretakoak: “Arropa dotoreak jantzita jaisten ginen” dio Manolik irribarretsu. “Palmera hostoekin eta apaintzen zuten lokomotorra. Goizeko 9etan zain jartzen ginen. Aurrez eskaera egiten genuen, orri batean idazten zuten gurasoek. Gureek ederki aprobetxatzen zuten behar zenerako, aterkia, jertsea... A ze zoramena gurea! Zure izena esaten zuten eta gerturatzen zinen trenera eta zure oparia ematen zizuten”.

Txikiak zirenean, lagunekin jolasteko herrira etortzen zirela diote, baina hazten joan ziren neurrian, pixkanaka gauzak aldatzen joan ziren eta lagunak hasi ziren beraien etxe ingurura jolastera joaten. Bainuetxeko teniseko pista asko jolasten zutela gogoratzen dute: “Sarerik ere ez zegoen, baina hockeyan ederki asmatzen genuen jolasten, palmera adar okerrekin!” dio Pedrok. “Denetarik asmatu genuen ga-



rai hartan: saskibaloian, futboleant, arkuekin... Gauetan pote-poteka... Orduan alderantziz izaten zen, gu han gertzen ginen etxean, eta haiek taldean itzultzen ziren herri-gunera”.

Ibaian ere saio ederrak egiten zituzten: “Baltsak-eta egiten genituen bilatzen genuen edozerekin! Irla moduko bat formatzen zen tartean eta hara eta hona ibiltzen ginen. Zubipean lotuta edukitzen genuen”. Garai hartan Urola ibaiak askoz ur gehiago eramaten zuen, presa eraitsi aurretik. Arrantzan ere aritzen zirela diote, eta inguru hartan karramarro mordoa zegoela; gaur egun ez dago horrelakorik inguru horretan.

Oikiatik Zestoara etorri zirenean estaziora bizitzera, ederki





Bainuetxeko tren geltokian bizi ziren, baina Marcosek zestoako tren geltokian lan egiten zuen

HORARIO DE SALIDA			
destino		destino	
7.10	a. SEBASTIÁN, OIARAN	8.24	ZUMAIANA
7.52	ZUMAIANA (Kobarnetako)	9.40	" "
8.56	a. SEBASTIÁN	10.18	AZOITIA
11.41	a. SEBASTIÁN, OIARAN	12.50	" "
13.46	a. SEBASTIÁN, OIARAN	14.41	ZUMAIANA
14.40	a. SEBASTIÁN, OIARAN	16.27	AZOITIA
17.02	a. SEBASTIÁN	19.15	ZUMAIANA
18.08	OIARAN	20.08	AZOITIA
20.09	a. SEBASTIÁN, OIARAN	21.10	" "

oroitzen dute aurreko zelaian egunero Aokoako Joxepa Gurrutxaga egoten zela ardi zain. Harekin ere, hartu-eman handia izan zuten. Egun osoa pasatzen omen zuen Idiakaizko zelaian eta makina bat aldiz berarengana joaten omen ziren. "Ilea ere askotan mozten zigun berak!"

Marcos aitak, animaliak oso gogoko zituen eta beti izan zituen animaliak etxe bueltan: ahuntzak, katuak, txakurrak, untxiak... baita baratza ere. Handik alde egin zutenean ere, baratza joaten jarraitu omen zuen egunero. Pedro Azkoitira ezkondu zen, baina bere seme zaharrena astero-astero etortzen zen; "izan ere, aiton-amonen etxera etortzea harentzat baserrira etortzea bezala zen, mundial pasatzen zuen hemen!" dio Pedrok.

#### GARAI BATEN AMAIERA

Urolako Trena itxi zenean, 1988an, Marcosek artean ez zuen jubilatzeke garaia eta azken urteak alde batera eta bestera eman zituen lanean: Durangon, Zumaian, Zarautzen... Urolako trena itxita egon arren, estazioko etxean bizitzen jarraitzeke aukera izan zuten, baina behin aita jubilatuta zenean, etxea uzteko abisua iritsi zitzaion. Ordurako herrian beste etxe bat erositako zuten eta bertara joan ziren bizitzera. Manoli alaba gazteenak 25 urte zituen garai hartan. Pedro zaharrenak zazpi urte gehiago zituen, ordurako ezkondua zegoen eta Azkoitian bizi zen.

jone bergara  
naiara exposito



HAMABOST URTE EGITEKO  
ETA EGIN BERRI DITUZTE.  
UMETAKO LAGUNAK BIAK,  
IKASKIDEAK ETA HAINBAT  
AFIZIO KONPARTITU IZAN  
DITUZTE. TARTEAN, DANTZA.  
IKASLE DITUT BIAK,  
DANTZARI FIN ASKOAK BIAK  
ERE, BAINA GAUR DANTZAKO  
ENTSEGUAN BEHARREAN  
KAFEAREN BUELTAN ELKARTU  
GARA. NIK BAKARRIK HARTU  
DUT KAFAA, BERAIEK EZER  
ERE EZ. NEUK ERE ADIN  
HORRETAN EZ NUEN JAKITEN  
ZER ESKATU TABERNAN.  
GAZTEAK DIRA, BAINA  
HELDUTASUN EDERRA  
ERAKUSTEN DUTE HIZKETAN;  
BERAIENTZAT HAIN  
GARRANTZITSUAK DIREN  
KIROLEI BURUZ ARITU GARA.  
ETXETIK JASO DUTE  
MENDIAREKIKO  
GERTUTASUNA ETA ETXEKOEK  
BULTZATU ETA LAGUNDU  
DITUZTE KIROLERA. BATA  
ESKALATZEN, BESTEA  
IRAUPEN ESKIAN.



**Gure herrian eta batez ere zuen adin-  
nean ohikoak ez diren kiroletan za-  
biltzate. Nola hasi zineten?**

Maria Illarramendi: Eskalatzen txi-  
kitatik. Gurasoak gaztetan zerbait  
ibili ziren eta bide errazetan edo hasi  
ginen hasieran, eta gero Azpeitiko  
lokalean hasi ginen Intza ahizpa eta  
neu. Gustatzen zitzaigula ikusi eta  
Donostiako Pio Baroja kiroldegian  
apuntatu gintuzten ikastaro ba-  
tzuetan. Astean behin joaten hasi  
ginen, eta galdetu ziguten ea berta-  
ko taldean hasi nahi genuen. Or-  
duan 11 bat urte izango nituen.

Nerea Cestona: Ni bospasei urtere-  
kin joango nintzen lehengo aldiz  
Somportera iraupen eskia egitera.  
Negan, asteburuetan, asko joan  
izan gara. Hala ere, ni orain arte  
futbolean ibili izan naiz, baina au-  
rreko urtean Zestoan talderik gabe  
gelditu ginen. Futbolean jarraitzeko  
aukera bakarra Zumaiara joatea  
zen. Orduan, banekien Azpeitiko  
ezagun batzuk Tolosako eski talde-  
an ibiltzen zirela, eta aitari proposa-  
tu nion. Galdetu genuen eta esan zi-  
daten prest banengoen eta gogo  
baneukan taldean sartu nintekeela.  
Iraila hasieran edo hasi naiz beraie-  
kin.

**Eta nola bizi duzue herritik kanpo  
ibili beharra?**

NC: Hemen gehienak futbolean  
ibiltzen dira edo saskibaloian, baina  
beraiek ere Zestoan ezin; Azpeitian  
edo Zumaiara ibiltzen dira.

MI: Niretzat aberasgarria da kanpo-  
ra irtetea. Beste herrietako jendea-  
rekin elkartzen zara eta betiko zir-  
kulutik atera.

**Gurasoen inplikazioa handia eta  
momentuan beharrezkoa, ezta?**

NC: Nik astean zehar hemen entre-  
natzen dut, baina gure etxetik bide-  
gorrira-eta joateko baten bat behar  
dut kotxearekin. Eta gero astebu-  
ruetan-eta eskiatzeko ba derrigo-  
rrezkoak ditut. Suerteak daukat ai-  
tak berak ere eskiatzen duela, asko  
gustatzen zaiola eta gustura ibiltzen  
dela giro horretan.



MI: Nik suertea daukat Intza ahizpa ondoan izatea; edozein lekutara joanda ere, elkarrekin ibiltzea daukagu. Gurasoei ere gustatzen zaie, eta entrenamenduetara-eta joateko, ba amak lana Donostian egiten duenez ondo datorkigu. Badakigu gustatzen zaizkien gauza batzuk ez dituztela egiten, gure arabera ibiltzen direlako, eta alde horretatik asko eskertuta.

#### **Nerea, Italian ibili zara eskiatzen, ezta?**

Bai, Cavalese herrian ibili gara, Val de Fiemme zonaldean. Hemen elur askorik ez zegoela ikusi zen, eta hemengo lasterketak atzeratzen ari zirela. Orduan, taldekide batzuk aurrez ere Italiara joanda zeuden lehiatzen, eta esperientzia ona izan zenez, ba berriz joatea erabaki zen. Urtarrilaren 20tik 29ra han ibili gara. Bi asteburutan bi lasterketetan hartu dut parte, Skiri Trophy eta Marcialonga Young karreretan. Eta astean zehar entrenamenduak egin ditugu. Cross-Country Stadium Lago di Tesero eski-estazioan ibili gara; munduko kopa jokatzeko den pistak dira, eta, beraz, ikaragarria. Bost kilometroko bi karrera egin ditut eta gustura, gure mailan. Han maila oso handia dago gurekin alderatuta. Gero, handik bueltatuta, hemen, Euskadi eta Nafarroako txapelketan, 16 urte azpikotan, hirugarren postua atera dut.

#### **Maria, zu lehiatzen zara?**

Guri txapelketa serioak ez zaizkigu asko gustatzen, gehiago gustatzen zaizkigu herrikoiak. Asteburu honetan, adibidez, Aretxabaletako topaketa batean hartu dut parte. Aurreko urtean, Euskal Mendi Federazioko eskaladako teknifikazio talderako frogetara aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten. Esperientzia irabazteko eta txapelketetan-eta parte hartzea zen asmoa, baina ez gara horrenbeste aritu, egia esan.

#### **Nola presatzen zarete, zer entrenamendu egiten dituzue?**

NC: Entrenatzaileak egutegia bidaltzen digu bi aste ko kalifikazioarekin. Neguan, elur garaian, gure herrian astean zehar egiteko bost eguneko lanak bidaltzen dizkigu. Korrika edo bizikleta eta eski gorpildunarekin (*rollerski*) izaten dira entrenamenduak. *Rollerrak* dira elurrik ez dagoenean aritzeko eskien imitazioa, patin handi moduko batzuk.

#### **Eta non ibiltzen zara horiekin?**

Lasaotik Azpeitirako bidegorrian eta Aizarnatik Santa Engraziarako bide-

an. Hori bai, beti ordekan edo aldapan gora, eski gorpildunek ez baitute frenorik! Denboraldiaurrean *rollerren* lasterketak ere egiten dira; negurako fondoa lantzeko onak dira. Eta entrenamenduen bigarren zatia gimnasiokoa da: abdominalak, lunbarrak, biceps, trizeps... indarra hartzeko. Gure kasa egiten dugu hori dena eta gero asteburuetan tartean behin elkartzen gara taldekideak.

#### **Eta bakarlan hori gogorra ez zaizu egiten?**

Zure kabuz egin behar duzu dena, eta zuk izan behar duzu kontziente zer egiten duzun eta zer ez, eta horrek zer emaitzetara emango zaituen edo ez. Nik suertea daukat aitak laguntzen didala askotan, gehienetan. Bakarrik egitea baino konpainian errazagoa da.

#### **Eta zure entrenamenduak, Maria?**

Astean bitan izaten ditugu entrenamenduak Donostian. Talde bat elkartzen gara, eta Antton Zabalak entrenatzen gaitu. Txapelketak-eta gerturatzen garenean fisikoa lantzen-eta hasten gara. Campusa erabiltzen dugu, hatzetako ariketak-eta egiteko egurrezko listoi batzuk dira. Erresistentzia landu nahi badugu bide asko egiten ditugu eta sokekin gora eta behera ibiltzen gara. Gero aste-bukaeratan haitzera joaten saiatzen gara. ➤



**nerea: "AITAK LAGUNTZEN  
DIT GEHIENETAN. BAKARRIK  
EGITEA BAINO KONPAINIAN  
ERRAZAGOA DA"**



► **Orain momentuan beste kirolik edo ariketa fisikorik egiten duzue?**

NC: Niri entrenamenduen barruan sartzen zait askotan korrika, bizikleta edo mendira joatea.

MI: Bueno, biok dantzan aritzen gara.

**Eta elkar lagungarriak egiten zaizkizue?**

MI: Malgutasuna, adibidez, bietan behar da. Niri asko gustatzen zait plakan eskalatzea eta hor garrantzitsua da oreka eta malgutasuna, eta ez indarra eta saltoak. Beraz, nik uste horretan laguntzen didala.

NC: Bai entrenamenduetan eta baita dantzako entseguetan ere, beti egiten ditugu luzaketak. Entrenatzaileak garrantzi handia ematen dio horri, errekupeziarako eta muskuluak horrenbesteko tentsioan ez izateko. Beraz, ondo uztartzen dira.

**Maria, zuk eskiatzen duzu, ezta?**

Gehiegi ere ez, baina eski alpetarrean zerbait ibiltzen naiz. Iraupeneko bi aldiz edo egin dut. Ne-guan, astebururen batean edo libratzen garenean, gustatzen zaigu bai eskiatzea. Orain gurasoei eta ahizpari ere, gero eta gehiago gustatzen zaie mendiko eskia, baina niri bat ere ez. Nire eskiak oso pisutsuak dira eta aldapa gogorra egiten zait.

**Eta Nerea, zuk eskalatu izan duzu inoiz?**

Asko ez, baina izebak-eta asko eskalatzen dute, eta udararen baten edo egin dut *boulder* pixka bat [harri-blokeak edo horma txikiak eskalatzea]. Eta egun sueltoetan-eta joan izan naiz rokdromora.

**Lagunek agertzen al dute zuen kirolarekiko interesik?**

MI: Beti ere zerbait diferentea denean kuriositatea sartzen da, ezta? Nola ibiltzen zarete? Astean bitan? Edo hango lagunei buruz ere galdetzen didate, eta beti esaten dute txapelketaren bat ikustera etorri nahi dutela. Behin ikastetxetik joan ginen eta han ikusi ninduten eskalatzen.


NC: Iraupen eskia egiten dudala esaten dudanean, ba galdetzen hasten zaizkit: baina nola entrenatzen duzu? Eta urtean zehar, elurrik gabe? Eski gurpildunek ere interesa pizten diete. Agiro mendi klubetik Somportera egiten den irteeran-eta kointziditu izan dut beraiekin elurretan.

**Zer da zuretzat eskalada?**

Niretzat? Dena. Ni orain konturatzen naiz eskaladarik gabe ezin-gu nukeela ezer egin. Jartzen naiz pentsatzen eta zer egingo nuke? Lagun asko ditut eskaladakoak. Eskalatu eta gero sentitzen duzuna... libre eta lasai sentitzen naiz, nire lekuan.

**Eta zuretzat eskia?**

Asko ematen dit. Txikitatik eskiatu izan dut, baina aurten taldean hasita jendearekin-eta egin ditudan harremanak ederrak dira. Ez gara asko, eta, beraz, oso gertukoak egin gara. Orain Italiako bidaiak ere asko elkartu gaitu. Bestela, kirol bezala ere asko ematen dit. Kirol denak bezala soltatzeko aukera hori ematen dit, pentsamenduak eta askatu eta. Aparte, elurretan-eta kristoren parajeetan ibiltzen gara eta alde horretatik ere asko ematen dit.



maria: "NIK SUERTEA DAUKAT  
INCZA AHIZPA ONDOAN IZATEA;  
EDOZEIN LEKUTARA JOANDA ERE,  
ELKARREKIN IBILTzea DAUKAGU"

amalur arisbi arregi





Gaztetxoekin dakiguna konpartitzeko

# IrASLeKua

zabaltzera goaz, parte hartu nahi?

**IrASLeKUA** izango da toki bat non LHko gaztetxoak elkartuko diren elkarrekin etxeko lanak egiteko, azterketetarako errepasoa egiteko eta hainbat gauza eta ekintza berri egiteko. Den-dena euskaraz izango da.

**IrASLeKUA** Gaztelekuan funtzionatuko du, Gaztelekua itxita dagoen egunetan.



Gaztetxoekin batera helduagook egongo gara. Izan DBH edo unibertsitateko ikasle, izan irakaskuntzan aritu edo aritzeko asmoa duen pertsona, izan bere zaletasuna partekatu nahi duen herritarra... -edozein izan daiteke: papiroflexia, mahai-jolasak, karta-jolasak...--  
Gaztetxoekin jardutea gustuko izatea da eta euskaraz jardutea dira baldintza bakarrak.

## Neurrirako konpromisoa

Haurrak nahi dutenean bertaratu ahalko dira.

Helduagook txandetan antolatuko gara, ziurtatu ahal izateko saio bakoitzean bi heldu egongo direla.

Norberak erabakiko du zenbat aldiz (bakarra ere izan daiteke edo egun solteak) eta zein maiztasunarekin. Hilabetez hilabete joango gara egutegia osatzen.

Guzti-guztia azaltzeko aurkezpen bilera egingo dugu, otsailaren 27an, 19:00etan, Gaztelekuan.

## Parte hartu nahi dut

- |  |  |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Astean behin                      | <input type="checkbox"/> Hamabostean behin                                   |
| <input type="checkbox"/> Egun solteetan parte har dezaket  | <input type="checkbox"/> Prestasuna dut eta behar diren egunak bete ditzaket |
| <input type="checkbox"/> Probatu nahi dut eta gero erabaki |  |

Gaztetxoei eskaini nahi diet:

- |  |
|--|
| <input type="checkbox"/> Etxeko lanetan lagundu    |
| <input type="checkbox"/> Hau irakatsi: .....       |
| <input type="checkbox"/> Beraiekin hau egin: ..... |

Izen-abizenak:

Telefono zkia:

E-posta:

Guri helarazi, hauetako bideren batetik:

- Moztu eta danbolinen buzoian utzi
- euskaraforoa@gmail.com helbidera bidali
- Telefonoz deitu: 943 147 010 (7. luzapena)



Zestoako Udala





*Zurrumurruek kearen antza dute, laster desagertzen dira, baina ukitzen duten guztia belzten dute. Germaine Necker (Madame de Staël)*

# usteak erdia ustel

'Immigrazioak gure nazio-nortasuna mehatxatzen du'



Bi uste ustel daude esaldi horretan:

- 1) Nazio-kulturak eta nazio-identitateak ez dira migrazio-haize batek suntsitzeko bezain hauskorrak
- 2) Migrazio-prozesuak dakarren eraldaketa kultural handiena migratzaileek eta haien familiek bizi dutena da. Akulturazioa du izena

Sentitu, pentsatu, hausnartu eta, ondoren, ekin

## TALOAK EGIN ETA JAN



Izotzari aurre egiteko, otsaila hasieran taloak egin eta janda, giro ederrean pasa genuen arratsaldea. Ikasle, mintzalagun eta irakasleek majo gozatu genuen, Euskal Herriko ohiko janari honen aitzakian, mingaina astiduz.



# adinekoen txokoa



## Zer da adinekoen 'infantilizazioa'?

Adinean aurrera doazen pertsonak, sarritan, haurrak balira bezala tratatzen ditugu. Muxu, laztan, beraiengana zuzentzerakoan erabiltzen den hitz egiteko modua.. Adituen arabera, zaharrekiko "infantilizazioa", tratu txar psikologikorik handienetako bat da. Zahartzea, bizitzaren prozesu naturala da eta bizitzako aro bakoitzari sor zaion errespetu berbera eman behar zaio. Ez dira inolaz ere bigarren mailakoak. Zenbait familietan, zaintzaile batzuen jokieran edo egoitzetan ere, ume trataera maiz errepikatzen da. Ondorioz, desgaitasuna duten adinekoek, etsipenez eta burumakur onartu behar izaten dute beraien egoera. Herriko bi egoitzetan, zorionez aspaldi baztertu zituzten era honetako jarrerak. Beraz, familian edo inguruan desgaitasunen bat duen norbait baldin badugu, ez dezagun *infantilizatu!*

Pentsionistak Martxan taldea



EREMU ZAILENETAN  
ERE ERAIKI DAITEZKE!



EZ DA OBRARIK  
EGIN BEHAR



DOTOREZIA ETA TEKNOLOGIA  
BATERATZEN DUTE



Edozein lorategira  
egokitzen den  
atsedenleku  
freskagarria!

 KIMUBAT  
— PAISAIA



- Eraikitzeko eta kentzeko erraza
- Garraio eta muntaketa erraza
- Erdi lurperatuta jartzeko aukera
- Aldapadun eremuetarako aproposak
- Ez dute obra baimenik behar
- Lorategirako altzariak ere izan daitezke
- 5 urteko garantia materialetan
- Espazio bakoitzera egokituta





Nik uste dut kontzienteki behintzat ez naizela arrazista, nahiz eta arrazakeriarekin lotutako gauza asko barneratuta dauzkagun.

**iñigo aizpurua**  
39 urte



Ez naiz arrazista kontsideratzen. Kulturak elkarbanatzea asko gustatzen zait, besteen-gandik ikastea, bertiere errespetuz.

**maria blanco**  
27 urte



Ez. Beti gustatu izan zait beste kultura eta ohituren berri izatea. Herrialde desberdinetako pertsonak ezagutzea aberasgarria iruditzen zait.


**olaia gurrutxaga**  
42 urte



Nola izango naiz ba arrazista, kanpoko naiz eta. Niganako arrazismorik ez dut sentitu inoiz.

**kevin penman**  
51 urte

## Arrazista al zara?




(Erantzuleak guztira: 125)

- Ez
- Bai
- Hala uste ez badut ere, bai
- Ez dakit



Oraindik ez dakigu traste handiekin zer egin behar den?



Larrain kalean espaloi gainean kotxeak ez aparkatzeko posteak jarri dituzte



## OTSAILA

**23** OSTEGUNA  
Argiola Energia Komunitatearen aurkezpena, 18:30ean kultur etxean.

## MARTXOA

**01** asteazkena  
'Euskararen kolapsoa ala kolapsoaren euskara?' hitzaldia Sukar Horia elkarteko kideekin 19.00tan Portalen.

**04** Larunbata  
Añota sagardotegira irteera oinez Agiro Mendi Klubak antolatuta. 16 kilometroko ibilbidea. Izena emateko deitu 610683723 telefonora. Prezioa 40 euro.

**08** asteazkena  
Emakume Langilearen Eguna, 18:30ean ekitaldi feminista plazan herriko emakumeek antolatuta. \*Itaiak deituta, mobilizazioa plazan 19:30ean: 'Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki' lemapean.

**12** IGANDEA  
Eskolarteko ibilaldi neurtua.

**14** asteartea  
'Kontaidazu ipuin bat' 17:30ean liburutegian.

**15** asteazkena  
19:00etan mahaingurua Portalen: 'Tortura Euskal Herrian'.  
Gonbidatuak: Olatz Dañobeitia, Maritxu Jimenez eta Julen Arzuaga.

**19** IGANDEA  
43. Herri Krosa. Iñaki Irureta memoriale.

**24** OSTIRALA  
Odol ateraldia.

**25** -26 asteburuan  
Pirineotara irteera Agiro Mendi klubak antolatuta. \* Ertxiña Musika Eskolako flauta topaketa Astigarragan.

**28** asteartea  
'Kontaidazu ipuin bat' 17:30ean liburutegian.

**ERTXIÑA MUSIKA ESKOLAKO**  
**ASTE MUSIKALA**  
Martxoaren 20tik 23a bitartean egunero musika instrumentu ezberdin baten emanaldia izango da 17:30ean kultur etxeko areto nagusian datorren ikasturtean musika tresna aukeratu behar duten ikasleei begira.

**Gaztelekuko martxoeko eskaintza**

**7**: 'ihes gela/scape-room' (2.zikloa), gaztelekuan. 16:45-17:30 edo 17:45-18:30 edo 18:30-19:30. Aurrez izena eman behar da.

**9**: 'nezaser-margoketa tailerra', gaztelekuan (3.zikloa)

**10**-11: 'nezaser-margoketa tailerra', gaztelekuan (3.zikloa) (DBH)

**17**: sexu-heziketa, gaztelekuan (DBH)

**21**: 'ihes gela/scape-room' (1. zikloa), gaztelekuan. 16:45-17:30 edo 17:45-18:30 edo 18:30-19:30. Aurrez izena eman behar da gaztelekuko whatsapp zenbakian (688 684 029).

**22**: 'ihes gela/scape-room' (1-2. zikloak), gaztelekuan. 16:45-17:30 edo 17:45-18:30 edo 18:30-19:30. Aurrez izena eman behar da gaztelekuko whatsapp zenbakian (688 684 029).

**16**-28: Gipuzkoako Foru Aldundiaren udaleku itxietarako izen-emateak, gaztelekuan.

**HABURRENTZAT JOLASAK,**  
**BARBANTXO AISIALDI**  
**TALDEAREKIN:**

Martxoak 3, 17 eta 31: Arroabeen.

Martxoak 10 eta 24: Aizarnan eta Zestoako herrigunean.

Barbantxoren saioetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da gaztelekuko whatsapp zenbakian (688 684 029).

**Fisioterapia**  
**Osteopatia**

**eskua**  
Therapy Group

— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

*Surya Paz Marticorena*

Osteopatia - Kirol masajea

☎ 605 765 140 📍 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20  
Zestoa 20740

**MI ZU**  
Hortz Klinika

mizuclicnicaldental@gmail.com  
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797  
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

**ZESTOAKO SAN TUAN FUNDAZIOA**  
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019  
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com  
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

**Taxi Zestoa**

🚗 9 Eserleku

Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

**GISASOLA**  
EGOITZA - RESIDENCIA  
Toribio Altzaga 6 - Zestoa  
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

**Botika - Laborategia**  
**ZURUTUZA**

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006  
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

**Gestoria Zubia**

M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, beheka - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070

**LINTERNERIA**  
**SANTA CLARA**

Tel. 943 851 868  
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



# ZESTOAN

*uste baino gehiago*

## Janaridendak

 **ELORZA**  
janaridenda  
943 147 660

**mian**txa  
943 147 015

  
943 148 428

**unide**  
egunero janariak  
943 558 005

**UZKUDUN**  
harategia  
Erdikalea, 5  
Tel. 943 147 023  
ZESTOA

## Arropa eta oinetakoak

**IRAOLA**  
ZAPATEGIA  
617 269 408

  
**lili** 943 148 061

943 147 110  
**mairl**  
LENTZERIA LOTERIA  
UME ARROPA ESTANKOA

## Teknologia, liburu, paper denda

  
**OTXOLO**  
Tel. 943 147 133

**Zbitt**  
Tlf: 943 148 010

## Edertasuna eta ongizatea

**karme**le  
943 147 832

**KE**RALA  
ongizate txokoa  
679 885 173

## Etxerako osagarriak

**ONK**  
943 147 081-647 683 643

**UGARTE**  
burdindegia s.l.  
943 147 154